Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

GAIA: FORU AGINDU BATEN PROPOSAMENA, ZEINAREN BIDEZ ERABAKITZEN BAITA EGOITZA-ZERBITZUAREKIN LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA ARAUTZEKO BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA ONESTEKO PROZEDURA HASTEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak ezartzen du ezartzen du ezen gizarte-zerbitzuen sistema arreta-sare publiko antolatu bat dela, erantzukizun publikokoa, eta zerbitzuei lotutako prestazio ekonomikoak jasotzen ditu prestazioen eta zerbitzuen katalogoan. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 2015eko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan ere arautzen dira prestazio horiek.

Foru-dekretu honen bitartez, Bizkaiko Foru Aldundiaren asmoa da egoitzen zerbitzuari loturiko prestazio ekonomiko bat antolatzea, egoitzen foru-sare publikoan plaza baten onuradun izateko eskubidea aitortu zaien pertsonei emateko, mendekotasun- edo desgaitasun-egoeran daudenentzako egoitzen foru-sare publikoaren barruan haiek aukeratutako zentroan plaza bat eskaini ezin izan zaienean.

ASUNTO: PROPUESTA DE ORDEN FORAL DISPONIENDO LA INCOACIÓN DEL PROCEDIMIENTO PARA LA APROBACIÓN DEL DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA POR EL QUE SE REGULA LA PRESTACIÓN ECONÓMICA VINCULADA AL SERVICIO RESIDENCIAL

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, establece que el sistema de servicios sociales constituye una red pública articulada de atención, de responsabilidad pública e incluye, dentro de su catálogo de prestaciones y servicios, las prestaciones económicas vinculadas a servicios, reguladas asimismo en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

Con este decreto, la Diputación Foral de Bizkaia pretende articular una prestación económica vinculada al servicio para aquellas personas que tengan reconocida la condición de persona beneficiaria de plaza en el servicio público foral residencial, a las que no se les haya podido ofrecer una plaza en el centro de la red pública foral residencial destinado a personas en situación de dependencia o discapacidad de su elección.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. J6OG-UCBT-LNQ4-WY1J Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) J6OG-UCBT-LNQ4-WY1J en www.ebizkaia.eus.

Halaber, zaintzaileen estatutuari buruzko 8.1 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta (abenduaren 26ko 192/2018 Foru Dekretuaren II. titulua), Bizkaiko Foru Aldundiak neurriak hartu behar ditu ohiko zaintzaile nagusiek atseden hartzeko eskubidea benetan baliatzeko aukera izan dezaten.

Así mismo, y en observancia de lo establecido en el artículo 8.1 del estatuto de las personas cuidadoras (título segundo del Decreto Foral 192/2018, de 26 de diciembre), la Diputación Foral de Bizkaia debe articular medidas que articulen el efectivo derecho al descanso de la persona cuidadora principal y habitual.

Foru-dekretu hori salbuetsirik dago aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egitetik, hala xedatzen baitu bere bigarren xedapen gehigarriaren 3. zenbakian Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak.

La tramitación del mencionado decreto foral queda exento de los trámites de consulta pública previa y de audiencia e información pública, por aplicación de lo dispuesto en Disposición Adicional Segunda, apartado 3º, del Decreto Foral 2/2017, de 17 de enero, que regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Halaber, 2/2017 Foru Dekretuaren 11. artikuluak xedatzen duenez, testu arauemailearen proposamena idatzi ondoren, organo eskudunak (saileko foru-diputatu titularra, kasu honetan) xedapen orokorra egiteko prozedura hasteko ebazpena emango du.

El artículo 11 del citado decreto foral dispone que tras la redacción de la propuesta del texto normativo, el órgano competente, en este caso la diputada foral titular del departamento, dictará una resolución para la incoación del procedimiento de elaboración de la disposición.

Adierazitakoaren ondorioz, txosten hau sinatzen dutenek proposamen hau

Por todo ello, quienes suscriben tienen a bien someter a la consideración de la

Elektronikoki sinatutako dokumentua. J6OG-UCBT-LNQ4-WY1J Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) J6OG-UCBT-LNQ4-WY1J en www.ebizkaia.eus.

aurkezten dizute:

Diputada Foral del Departamento de Acción Social, la siguiente propuesta de

## FORU AGINDUA

**Lehenengoa.-** Hasiera ematea hau onartzeko prozedurari: egoitza-zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoa arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua.

**Bigarrena.-** Foru dekretua aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea egitetik salbuetsita dagoela deklaratzen da.

## ORDEN FORAL

**Primero.-** Incoar el procedimiento para la aprobación del decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se regula la prestación económica vinculada al servicio residencial.

**Segundo.-** Se declara justificada la exención de los trámites de consulta pública previa, así como del de audiencia e información pública.

Sin./Fdo.: IMANOL MADARIAGA SASIETA - 2019-03-14
PERTSONEN AUTONOMIA SUSTATZEKO ZUZENDARIORDE NAGUSIA
SUBDIRECTOR/A GENERAL PARA LA PROMOCIÓN AUTONOMÍA PERSONAL

Sin./Fdo.: SERGIO MURILLO CORZO - 2019-03-14
AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO ZUZENDARITZA NAGUSIA-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE PROMOCIÓN DE LA AUTONOMIÍA PERSONAL

Akordioa/Acuerdo: OF 15832 - Data/Fecha: 2019-03-14
Sin./Fdo.: MARIA ISABEL SANCHEZ ROBLES - 2019-03-14
GIZARTE EKINTZA SAILA-REN FORU DIPUTATUA
DIPUTADO/A FORAL DE DEPARTAMENTO DE ACCIÓN SOCIAL

Elektronikoki sinatutako dokumentua. J6OG-UCBT-LNQ4-WY1J Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) J6OG-UCBT-LNQ4-WY1J en www.ebizkaia.eus.